


INDUSTRI PRODUKZIOAREN INDIZEA (IPI) 2004ko AZAROA

Euskal AEko industri jarduera %6,8 hazi zen 2004ko azaroan

2004ko lehenengo hamaika hilabeteetako metatua %4,3 hazi zen, aurreko urteko tasaren bikoitza baino gehiago.

EUSTATEk landutako datuen arabera, 2004ko azaroan, %6,8 hazi zen Euskal AEko industri produkzioa, urte arteko tasan. Urteko lehenengo hamaika hilabeteetako balantzea %4,3ko hazkunde metatuarekin itxi zen (2003an %1,9koa). Egutegiaren eragina kontuan hartuta, balio homogeneotan, 2004ko azaroan %4,5ekoa izan zen urte arteko aldakuntza, eta urteko metatua %3,8ko tasara iritsi zen (2003an %2,0).

Euskal AEko Industri Produkzioaren Indizearen urte arteko hiruhileroko hazkunde zuzendua, 1999-2004



(*) 2004ko urri-azaroako urte arteko hazkunde zuzendua
Iturria: EUSTAT

2004ko azaroan, urte arteko aldakuntzarik positiboena, balio absolututan, sektore hauei egokitu zitzaizkien: *energia elektrikoa, gasa eta ura* (%15,6), *garraio-materiala* (%13,6), *larruaren eta oinetakoen industria* (%10,1) eta *kimika-industria* (%9,8) sektoreei, besteak beste. Urte arteko hazkunde-tasa negatiboak, berriz, honako hauek izan zituzten: *metalezko eta ez-metalezko meak* (%-14,0), *ez-metalezko industria* (%-10,0) eta *ehungintza eta jantzigintza* (%-8,7), sektoreek, batik bat.

Urteko lehenengo hamaika hilabeteetan, aurreko urteko aldi beraren aldean, hazkunde-tasa handienak sektore hauei egokitu zitzaizkien: *energia elektrikoa, gasa eta ura* (%20,2), *petrolioaren finantza* (%9,0), *garraio-materiala* (%7,1), *material elektrikoa* (%7,0) eta *makineria* (%6,3) arloei, besteak beste. Tasa negatiboak, berriz, honako hauek izan zituzten: *larruaren eta oinetakoen industria* (%-13,4), *metalezko eta ez-metalezko meak* (%-12,5), *ez-metalezko industria* (%-11,0) eta *bestelako enbriak* (%-7,1) arloek.

Helburu ekonomikoaren arabera, 2004ko azaroan, *kontsumo-ondasun ez-iraunkorren* (%3,6) eta *kontsumo-ondasun iraunkorren* (%2,0) igoerek eraginda, igo egin ziren *ekipo-ondasunen* urte arteko tasa (%11,4), *energiarena* (%9,8), *bitarteko ondasunena* (%5,2) eta *kontsumo-ondasunena* (%3,1).

Urteko lehenengo hamaika hilabeteetan, balio absolututan, *energiak* %16,9ko hazkundera metatu zuen, *ekipo-ondasunek* %5,4koa eta *bitarteko ondasunek* %2,8koa. *Kontsumo-ondasunak* osotara %0,2 jaitsi ziren, honela banatuta: *kontsumo-ondasun iraunkorrak* %-2,9ra iritsi ziren eta *ez-iraunkorrak* %1,1era.

Lurralde historikoaren arabera, Indize Orokorren urte arteko bilakaerek erritmo desberdinak izan zituzten; balio absolututan, %7,9 hazi zen Gipuzkoan, %7,0 Araban eta %5,6 Bizkaian. Urteko lehenengo hamaika hilabeteetan hazkunde metatuaren tasa handienak Arabak (%8,1) lortu zituen, ondoren Bizkaiak (%3,6) eta azkenik Gipuzkoak (%3,0).

Taula: 2004ko AZAROA. Euskal AEko Industri Produkzioaren Indizearen aldakuntza-tasak (%)

Kontzeptua	2004		2003	
	originala	zuzendua(*)	originala	zuzendua(*)
Indize orokorra: Euskal AE	6,8	4,5	2,0	1,9
Araba	7,0	4,2	7,3	7,1
Bizkaia	5,6	4,0	-0,3	-0,5
Gipuzkoa	7,9	5,3	1,8	1,8
Indizeak helburu ekonomikoka- Euskal AE				
Kontsumo-ondasunak	3,1	-0,4	1,6	7,1
-Kontsumo-ondasun iraunkorrak	2,0	-1,0	-7,0	5,0
-Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	3,6	-0,1	6,8	8,3
Ekipo-ondasunak	11,4	11,4	0,3	0,2
Bitarteko ondasunak	5,2	5,2	-0,4	-0,4
Energia	9,8	9,8	20,4	20,4

(*) egutegiaren eragina zuzenduta

Iturria: EUSTAT

Argibide gehiagorako:

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945 01 75 00 Faxa: +34-945 01 75 01 E-maila: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel.: +34-945 01 75 06. Faxa: +34-945 01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-Bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp